

# BIZIAREN GILTZAK

Afrika beltzeko gora-beherak izan dira Aita Santuaren kezka eta buruauste. Esan zeduzkan itzik gogorrenak jakki dira bere biotzetik: "Bukaera bizidugarri eta biotz-gabea", "Grifa txar eta mendeku itxuraren lasaipide", "gorrotoaren eta biotz-gabeziaren irakina", "Giza-biotzari, giartzeari eta giza-eskubideei egindako irain berdingabe eta lotsagarria".

Eta bai al du inork inor eraitzeko eskubiderik?

Jainkoak bakarrik ditu gizonaren bizia giltzak. "Inor ez duzu ilko" ezarri du gizon bakoitzaren biotz-barnean.

Erraz, errazegi, esan du Elizak erri-agintariak badutela gizar-tearantz arrixko diranak garbitzeko eskubide. Ez ote dago ogeigarren mendearen gizar-teari arrixko ori kentzeko beste biderik?

Baiña egin dezagun kontu badutela erri-agintariak eskubide ori. Erriagintari guziek al dute? Baita agintea erriaren kaltetan erabiltzen dutenak ere? Baita giza-eskubideak oinperatzen diuztenak ere?

Gizartearentzat galtegarri diranak eraitzeko eskubidea, izatekotan ere erriaren izenean, erriaren ordez, eta erriaren onerako agintea darabilten erri-agintariak bakarrik izango lukete.

Nundik eta nola diktadoreak nahiz ezkerrekoak nahiz eskubidekoak, nahiz kapitalistak nahiz sozialistak, eraitzeko eskubide ori?

Agintedunek, beren aginte-aldia baino ohegorik ez ditekela izan uste duten bitartean, agintek berekin darama indarkeria eta zapaketa. Ukatu dizkio sozialismoak ere erriari agintzen dizkion askatasun eta zerua, agintariak izendatzeko eskubidea kenzen badiu.

Agintedunek biur ditezke erriaren kaltegarri. Eta kaltegarri ere dira erriaren irizikiak izotzen badituzte. Gizon bakoitzak askatasunerako, batzarretarako eta elkartasunerako dituan eskubideak debekatzeko badituzte.

Gizonaren alderdi asko gaixotu, elbarritu, erkindu eta erail dezake indarkerizko aginte batek. Eta agintekeri orren aspian dagoanari etzaio beste biderik galditzen edo etsi eta erdi-gizona izan edo agintekeri ori suntsitzen ahalaginak egin.

Ona emen gaurko urkamendi askoren iturria.

Ez da nahikoa urkatuaren aurrean larrituta deadar gitea. Zerk eraman du urkamendira galdetu behar dugu? Ez al du gizarte aldreses batek eraman? Ez al du indarkerizko eta gogor-kerizko aginte batek eraman?

Noiztik egon behar lukete Kalbarioko urkamendian, gurgutzean? Jesusek ala Judas, Pontzio, Anas eta Kaifasek?

## Gazte bat mintzo

# GURE BIZITZA

Gure bizitza ontan askotan pentasatzen jarri izan gera, zertarako nagoen emen, zertarako ari naizen lan au egiten, edo zertarako jaino nintzan erri ontan.

Alde guztiatetik gorrotoko beste-rik ez degu ikusten, denak, lurperatu naian dabilta, etorkizunik ez digute eman lan, itz batez ez genduen merezi jaiotzerik.

Baiña, zergaitik orrenbeste gorrotoko?, nor du orren kulpaz?, erri guztiak pagatu bear al du gizon batzuen jokabidegaitik?, nik nai nualako jaino al nintzan erri ontan?, zergaitik bizi guztia igaro bear degu? illunpetan, zergaitik ez det merezi erri aberats baten bizi ta azkeneko etorkizunen aurrean igaro, gure eskuak bazab beteak erakutsi gabe?

Galdere auek askotan egin izan ditugu ta baita askotan baztertua utzi ere erantzunik arkitu ez degulako, batez ere azkeneko gertakizun auen aurrean, alde guztiatetik erori zaizkigu (...), esate gogorrik, iriziti zorrotzak ta askotan dudu egiten degu zerba it ba ote geran edo merezi ote duen orrelako erri batetan bizerrik; inuidik ez degu ikusi atera biderik ta gizonaren izara edo nortasuna gaitzeko zorian arkitu gera. Orregatik ongi iruditzen zait iriziti batzuk ematea bein betirako gizontasunean sar gaitzen ta arrixko baten aurrean arkitzen geranean jakin dezagun ze erabaki artu, naiz buila aundikin kontra egin; denen aurretik egia ta justizia da.

Gizontasunean sar gaitzen esan get eta zorritzarex au egia da izan ere askok orrela ez pentsa arren oso gizontasun txikia ikusten da, ez dakigu erabakiak zuzenki artzen,

batek esan dualako iruditzen zaigu orrela bear duala ta ori ez da egia naiz personalidade aundikoa izan edo botarea askoko egunerokoa izan. Gaur egunean, oso ederkik dakigu, adiskidetasunik oso gutxi dagoela, bakoitzak bere interesagirik jokatzen duala, ta naiz XX gizaaldian egon, aundiak txikia jaten du ta O.N.U.K gizonaren eskubide legeak eman, bakoitzak komeni bezela antolatzen dituela. Jokabide askotan alde bat bakarrik ikusten degu edo alde bat bakarrik ikusarazten digute, bestea isilaraziaz, ta, egia da, orduan dakiguna esan bear, baiña pentsa dezagun, izaerak dion bezela, ez dala gaitzakeriak ona ekarri ez lezakeanik, ta iriziti bat artu bear degunean aztertu ditza-gun bi alderdik ta orduan iriziti jakintsuz mintzatzeko gera. Orrela bein betirako bukatuko aal dira, alkarrenganako ezin emanak ta gorrotoak; ez gaitzen gorde aundikin baten aspian izan ere aundiak txikitu dezake ta orduan azkenengo orduak denen gorrotoan ez ditza-gun bukatu. Ez zait iruditzen, mundu ontan igaro bear ditugun egunak alkarri galeraziaz bizerrea merezi duanik, izan gaitzen leialak ta apalak, baiñan injustiziaran aurrean gogorrek gure bizeraren zorra bai degu.

Saia gaitzen guztiok galdera auei erantzuna arkitzen ta, jatorrasun guztian egiten badegu, konturatuko gera, mundu ontako biziak zerba it balio duala. Billatu dezagun zoria-ba bere bidean, ez gorrotoaren aspian asko arkitzen geran bezela ta orduan mundua igarotzekoa egingo degu, naiz ezia ikusi baiñan pentsa gauza pittinietik asten dala.

Ayerza - (Sahara)

# EZAGUTZEN EZ DITUGUN AMA OIEK

Burgosko prozesoko abendu luze eta larria bizi arazi digu.

Eguberri otzak izan dira oiek! Orrenbeste denboran zai egon eta eldu zan noizpait berria: gure erriko gazte oiek ez zituztela ilko. Ba zirudien danak anasa berria artu genduela. Gero, bakoitza berera, eta uste gabeen ahaztu ere egingo zaigu olakorik inoiz pasa dela.

Baiña, egia izango da alda ere epaituak izan diren amasei neska-mutil oien amak sentitu gerala Euskalerriko ama guztiak. Egunkariak eta irriatik eta telebistak kezkatuak zeuden, bai, Beihl Konsul jauna eta aren emazte eta alaba nolako miñaz ote zeuden; guk ere sentitzen genduan ama-alabak sentitzen zuten min ori, baiña gure erriko amasei gazte oiek umertzut ziruditen: ez zien neska-mutil oien amei argazkirik eta entrebistarik egin. Zer esango ote ziguten, galdetuak izan balira, guk ezagutu ez ditugun gure erriko ama oiek?

Beihl jauna itzuli zan etxera, eta beriz osatutako familiaren berri franko izan dugu. Pozten gera! Baiña jaino zan Jesus Salbatzailea, eta oraindik ez zaigu arn pakea etorri. Zer arpegi jarriko ote zuan Jaungoiko Ume jaino berriak sententzia ezagutu zuean?

Txikiak sentitzen gera ama ez-egagun oiek izan duten barruko indar ori neurtzen asten geranean. Auzia pasako da ixtorria, eta baliteke gazte oien amarik aipatu ere ez egitea: baiña guk, Euskalerriko amae, ezin ditzakegu ahaztu. Pasa dituzte gogorrenak, ala dirudi, baiña aurrera ere bizi beharko dute, seme-alabei bixitak egin beharko dizkiete, zerba it emango badiete; izango dute mila kezka: zer ote pasatzen ari ote dira; osasunaz ondo ote gabiltz, gero!; au eta beste, beharko dute...

Seme-alabek idatzitako eskutitzen zai ere geratuko dira maiz!

Zailena geratzen da oraindik: nondik aterako dituzte andre oiek indarrak kartelaz dauden seme-alabei (begirada goxo batekin, itz xamur batekin) berak asko maite ditzutela adierazteko, bere maitasuna beti bezelakoa, aunditu delat, esateko; eta au gaur eta biar, illa-beteak joan eta illabeteak, etorri.

Ama oien miña, eta beste gazte askorena ere bai noski, ez da bukatu. Eta nik, beste ama askoren antzera, ezin ditzaket ama oiek (ezagutzen ez ditudan ama oiek) bakarrik utzi; ez ditugu utzi behar! Ahal dugunaz, beren ondoan egon bear genduke; gure erriko amek garai mingarri ontan erakusten diguten arpegi baitira.

(Anamari Ugaldek egindako idatzi batetik euskeratua)



# "LA FROUSSE DU DIMANCHE"

"Plus de la moitié des gens a la frousse du dimanche": jendearen erdia baino gehiago bildur zaio igandeari. Hauxe esaten zidan lehenagoan baiorak adiskide batek; eta, jakin gabe noski, gaurko soziologiarren sospesa-buru eta ka-tramila-turri bihurtu den egia aipatzen zidan.

Alegia: jendeak ez duela astirik izan nahi. Jendeak lanegin egin nahi duela funtsean, hori uste ez badu ere. Jendea, horregatik, ikararak dago jai-bezperan; eta, ene adiskideak egokiro zion bezala, igandearen bildur da. Ba daki hau Mikel Lasa gure poeta bikainak; eta, Julien Green oinharri, orrialde eder bat eskeini digu igandea hutsunean.

Hauxe da hain zuzen Georges Friedmann soziologiari ezagunaren azken tesia (irakur, otoi, berriki agertu duen «La Puissance et la Sagesse» liburua), eta argi eta garbi aitortzen digu berak, ez zuela horrelakorik espero. Uste zuen G. Friedmann-ek, gehienek bezala, lanegin-behar aspergiararen lotura, tiki libratu nahi duela gizonak; eta, teknologia aurreratu ala, gizonak pozki baliatuko eta uxiatuko zituela bere asti berri guztiak. Eta orduarteko denbora baldindu horiek—alienatu horiek, hobeki esateko—nolanahiko lotkia guztiatetik at jarriko zituela, eta hutsik utziko.

Ez da horrelakorik gertatu, ordea; eta Friedmann-ek aitortzen duenez, nahasi egin ziren soziologiariak hori pentasatu: ez bide da egia gizonak lanaren herustetik eta lotoretatik irten nahi duela: «Etxeko lanak, diru-ordainik gabeko «bricolage» delakoa, etxen behartasunik gabe egiten den lana, alegia, ez bide zaio aski. Beste lanbide ordaindurik bilatu behar du kanpoan, eta, batez beste bederen, behartzale behar du izan bigarren lanbide horrek».

Kasu! Ez dut nik esaten, eta ez inork, hamabi orduz lanegitea kilorata bat edo festa bat denik, ez seta hutsa! Gaur gaurkoz, urritasunaren garaiari gaudeno (Sartrek bezala esateko), bizi ahal izateko egiten da lana, eta astirik ez dago, edo ia. Erdipurdi edo gaizki bizi ahal izateko egiten da lan, baita osasunarentzako akigarri den moduan. Zer esanik ez orain dela ehun urte, kapitalismo gatazteren mende... Honek ez du dudarik.

Baina norik bere burua eta familia mantentzeko behar dituen lan-ordurak gutxituz doaz. Eta Amerikako Erresuma Elkarteetan, gonbarazio baterako, eta Europako herri-rik «aurreratuenetan» (Suezia, Suiza, Alemania, Holanda), astian arazoa sortzen hasia da. Astean 36-lan-ordu, eman dezagun; eta guzti-lan. Langile batzuk, beraz, gero eta langile gehiago, astia izaten hasi dira: denbora apur bat ba dute egunerio (larunbata eta igandea guri) librori ari izateko, eta diru-lanari datzeko ordu alienatu batzuk gutxienez alde batera utzteko.

Hots, zer gertatzen ari da USA-n? Astia duen jende horrek «bete» egin nahi duela asti-unea, «lotuta» pasa nahi duela denbora hori; edo, ene adiskideak zion bezalatsu esateko, astegunetako igande-pusken

bildur dela: «ez da batere gauza segurua pertsona guzientzako, irabazketa haundia izan eta astia luza-teko aukera gertatu, eta nahi-luz-nahi-uz, asti luzeago baten eskaera benetan egingo denik».

Igandean oso erraza da pentsatzea eta gogoeta ilunetara lerratzea; eta jendeak, orain inkestek erakusten dutenez, lanegin nahiago du (baita bi lekutan, baita hirutan) igandeko asti-une geldi horietan oere buruarekin heriotzarat ari to-po egitea baino.

Mintza begiku berriro Georges Friedmann: «ongi-biziarren bultzada, eta «standing» edo bizi-maila delakoa, urrun daude bigarren lanbidearen kaka arras argiztetik: askotan, aitzitik, bai lanean eta bai lan-eezan somatzen den barne-ikarari ihes egiteko bide bat da bigarren lana: biderik kilkgarriena eta erazana hain zuzen». «Egiazi—dio Friedmann-ek—«langile askok ez du asti luzeagorik bere esku izan nahi».

Behin eta berriz dio Friedmann-ek lanak taxutu edo «estrukturatu» egiten duela gizonaren biziera; eta, honen bidez, falta ohi zaigun «biziarren zentzua» lortzen dugula. Lanak, hitz batez, paketu egiten gaitu geure buruaz, lasaitzen, eta erantzun argirik gabeko galdetarik urrutzen. Lanak, beraz, alienatu egiten gaitu; baina esan ohi den mailan baino sakonkiago. Lanak estali egiten du gizonaren benazko egoera.

Sasi-terapeutika hau ongi ezagutzen dugu. Nancy Mosse eta Robert Weiss-en inkestek erakutsi dutenez, galdeta egin zaien langile-eterik %-eko 80-ek hau erantzun dute: baita bizi-beharrek beharrik ez baleude ere, lanean jarraituko lutekeala...

Psikologiari, bestalde, gauza esaten dute.

Friedmann-ek Erich Fromm aipatzen digu. Honek, psikiatra askok bezala, sentidurik-uz eta helbururik-uz ezin sakonago horretan somatu uste du gaurko gizonaren ihes-egin-beharren kaka. Eta hau du: «Eragile edo bultzagarri horien inportantzia haundia (alegia, diruaren, indarraren edo izen-onaren bilaketa erabatitako) pertsona alienatuak bere barne-hutsuneari ordari edo kontentsazio-kide bat aurkitu nahi izateak horretaraten du; eta ez, askok hau uste bait du, eragile horiek berezkoak eta inportanteanak izateak».

Soziologiari, hortaz, harriturik, hau aurkitu uste dute: erretiro-aldia, lan-eza eta lanegin ondoko astia, anaia bixikiak direla; eta sosa-ren arazoa ez dela beti haiekiko izan ohi den bildur ezagunaren kaka. Hau barneago dago itxuraz.

Friedmann-en teoria zientifiko hauek aisa sala ditezke «burgese-tzat. Ez zaio arrixko hau frantses jakintsuarri itzuri. Baina gizonaren barne-kezka eta, sentidu-behar horietan sinesten ez dutenek, ez dute gizonarengan urdail-beharren problema zaino goragorik ezzer konpunduko; eta, aski dela esanez, batetik irain egiten diote gizonari; eta, bestetik, laster bilduko dute, sinetsita egon, beren sukaldetariari dogozkin txerrija eta hondakin-uzta. Gizona gauza apurra da, bai; baina ez da ogi hutsuz elikatzen. Giza-tearen gaitzak sakonago diru urdail gorabehera guztiak baino: nahiz hauek dauden bitartean, hau egia hutsa da, besterik somatzen zail izan.

«Astia barne-hutsune bat bezala hartu ohi dute Ameriketako langileek», ekiten du Friedmann-ek. «Hutsune hori diru-emale den biker-hutsune hori diru-emale den brikolajearen bidez beteraten dute zenbait aldiz, beste batzutan bigarren lanbide batez; eta ez bakarrik «diru-gose» direlako («money hungry», sindikatuetako zuzendariak esan ohi dutenez); baina baita hutsune hori bete nahi dutelako».

Jendea igandeari bildur zaio, hitz batez, oso bildur. Bai, jauna. Eta nekez uxa daiteke arazo-iturri funtsezko hau axalean gelditzen diren fraseologiez.

LARRESORI



Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Argitaratzailea:

Nafarroako-Kantauriko ta  
Aragoiko Kaputxinoak.  
(Mayor, 50-1.\* - Burlada  
Pamplona).

DONOSTIAN:

Oquendo, 22 - Tel. 26666.